

1978-XI-24

Donostian, Gipuzkoako Diputazio jauregian, 1978.ko Azaroaren 24an, arratsaldeko lauretan, bildu dira: L. Villasante buru, J. Haritschelhar buruordezko, J.L. Davant, X. Diharce, J. Iriart-Urruty, A. Irigoyen, F. Krutwing, P. Lafitte, E. Larre, J. San Martin eta J.M. Satrustegi euskaltzain jaunak; J.M. Aranalde, P. Arregi, M. Atxaga, P. Charritton, J. Fdz. Setien, J. Garmendia Kortadi, X. Garmendia, J. Goikoetxea Maiza, X. Kintana, J.L. Lizundia, A. Zatarain eta J.J. Zearreta euskaltzain laguntzaile jaunak, San Martin idazkari dela.

E. Knörr, P. Larzabal, L. Mitxelena eta A. Zavala jaunak ezin etorria adierazi dute.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarra.

Urrileko batzar agiria onartu da.

a) *HARREMANAK*

Espainiako Gobernuko Lehendakariaren idazkaritzatik hartu den gutunaren berri eman da. Konstituzio berriaren proiektuari aintzin tituluko 3. artikuluari Euskaltzaindiak egin zion oharra hartu zutela eta jakinaren gain jartzen direla aditzera emanaz. Baita ere, E.K.N. eta Bizkaiko Diputazioaren gutunak, gai berari buruz.

Agiriak deritzan liburua, Gipuzkoako Aurrezki Kuntzak G. Aresti zenaren omenez argitaratuaren aurkezpena urrengo baterako atzeratua izan dela aditzera ematen du idazkariak.

A. Irigoyen liburuzainak hartu diren liburuen berri eman du eta emaille diren guziei eskerrak agertzea erabaki da.

Xenpelar sariaz, lanak hartzeko epea bete da eta epai-mahaia izendatzen da: A. Zavala, J.M. Lekuona, J.M. Aranalde eta F. Artola "Bordari".

A. Irigoyenek liburutegia eratzen ari den J.A. Aranaren lanen berri eman du.

b) *GOIZEKO BILKUREN BERRI*

Kargu berritzeak, Arautegiaren 28. 29. 30. 31. eta 32. artikuluen (ikus *Euskera*, 1974, 369 orr.) arabera, 12 euskaltzain oso bildu dira eta beste hiruk beren bozen ordezkoen izenak eman dituzte izkribuz. Bozketak, era honetara izan dira: euskaltzainburutza, 14 boz L. Villasanteren alde eta 1 P. Lafitteren alde; Buruordetza, 14 boz J. Haritschelharren alde eta bat zuri; Idazkaritza, 13 boz J.M. Satrustegiren alde eta 2 zuri; Diruzaintza, 14 J. San Martinen alde eta bat zuri. Denak erdiak eta bat gehiagorekin irten direnez, ondoko bi urteetan jaun hauek osatuko dute Zuzendaritza: L. Villasante buru, J. Haritschelhar buruorde, J.M. Satrustegi idazkari eta J. San Martin diruzain.

Gainerakoan, ahobatez, A. Irigoyen izendatzen da liburuzain eta J.A. Arana Martija laguntzaile. Ordezkaritzetan, P. Charritton Baionako idazkari eta E. Knörr Arabako buru. Horietaz gainera, Iker sailaren arduradun, L. Mitxelena, eta Jagon sailarena, J. San Martin izango dira.

Euskal Idazleen Elkarte Durangoko Euskal Liburu Azokan bildurik eta Euskaltzaindiaren babespean jartzeko eskaria egin zuen. Onartu da.

Bertsolari txapelketak berriztatzeko ahaleginak egitea erabaki da, eta horretarako datorren hilaren 22an, bertsolaritza batzordea bilduko da.

Bustidureli buruzko erabakiak onartu dira, L. Villasante-ren txosten eta A. Irigoyenek eman dituen oharren ondorean. Bozketara joaz, 14k baietza eta lek ezetza. Kontsonante busti-palatalen grafiazko txostena, azken erabakitakoa, A. Irigoyenek irakurri du.

Arkitektura hiztegiari onespina eman zaio. Gai honen batzordeko arduradun zen Jose Migel Zumalabe jaunak ezin etorria adiarazi du eta lan hontan parte hartu dutenen izenean Elhuyar elkarteo Iñaki Azkuna eta Euskal Herriko Arkitektoen Kolegio Ofizialeko Jose Mari Aranburu jaunek eman dute lanaren berri.

d) *ADITZA BATZEKO BATZORDEAREN HISTORIAZ ZERBAIT*

X. Kintana jaunaren txostena. Batzordeko idazkariak eman zituen argitasunei zenbait ohar egin dio. Argitasun horiek *Euskera*, XXII 2. aldia, 1977.eko Uztailetik Abendura, 667-672. orrialdeetan agertu ziren.

e) *ERRAMON INTZAGARAI SORRERAKO EUSKALTZAINAREN OROIMENEZ BERE MENDEURRENA*

Juan Jose Arrue jaunaren txostena. Erramon Intzagarai "Elurmendí" zenaren ehunurte buruan bere omenez, bere bizitza eta lanei buruz mintzatu da. 1878an sortu zen Donostian bertan. Euskaltzaindiaren sorrerako euskaltzainetako bat, 69 urtekin hila, euskal idazle, irakasle, olerkari eta kondairazale zena.

Ohi den otoitzarekin bukatu da batzarra.

Euskaltzainburua

Luis Villasante

Idazkaria

Jose Maria Satrustegi